

Kultur Agenda

Azaroa
Abendua
Agoitz
2020

☎ 948 336 690

✉ cultura@aoiz.es

f Facebooken gaude



SI TE MANDAN UNA CARTA

LA INSUMISIÓN RETRATADA
POR UN FOTERO DESOBEDIENTE

txalaparta

www.aoiz.es

Joze Lacalle


Agoizko Kultur Etxea
Casa de Cultura de Aoiz


Nafarroako
Gobernua


NAFARROAKO
ANTZOKI
SAREA

azaroa

				1			
2	3	4	5	6	7	8	
9	10	11	12	13	14	15	
16	17	18	19	20	21	22	
23	24	25	26	27	28	29	
30							

abendua

	1	2	3	4	5	6	
7	8	9	10	11	12	13	
14	15	16	17	18	19	20	
21	22	23	24	25	26	27	
28	29	30	31				

azaroa

1, 6, 13, 22, 25 Genero Indarkeriaren Aurkako Zikloa.

5a Zinea. Florecica, Josefina Lamberto.

6-28 Erakusketak. Klaustrofilia.

8a Antzerkia. Adiorik gabe.

19a Hitzaldia. Osasuna.

20-1 Erakusketak. Agoitz Hiria Argazki XV. Lehiaketa.

28a Musika. Alfredo & Iker Piedrafita. Kontzertu akustikoa.

29a Monologoak euskaraz. Txor txor bakarrizketa umoretsua.

abendua

12a Musika. Trikidantz. Bizitzaz goxatu.

18a Hitzaldia. Eguberri osasungarriak.

11-22 Erakusketak. Si te mandan una carta.

14, 15 Antzerkia. Oholtzara salto. Antzerki Foruma.

17, 18 Antzerkia. Oholtzara salto. Maia. Neska arrunt bat besterik ez.

19a Musika. Coral San Miguel de Aoiz-Agoizko San Migel Abesbatza

20a Zinea. Bi urte lau hilabete eta egun bat.

27a Antzerkia-Magia. Ezinezkoaren logika. Hodei Magoa.

28, 29, 30 Tailerra. Eguberrietan Plastikutzen.

**Ikuskizunek aldaketak jasan ahal dituzte.*



Genero Indarkeriaren Aurkako Zikloa

Azaroaren 1a, ostirala. 19:00. Kultur Etxea. Sarrera librea.

ANTZERKIA

PERDIENDO EL JUICIO

"Perdiendo el juicio" jatorrizko sorkuntza den gaur egungo tragikomedia musikal bat da. Sexu-abusuen eta bortxaketen epaketak eta kondenak hausnartzendira. Genero ikuspuntuak legetan, egoera berriei moldatzearen beharra, epaile matxistak, aurreiritziz beterik dauden galdeketak, biktimaren biktimizazioa, gizartearen epaketak paraleloa, patriarkatua, hipokrisia. Komedia erreala, ausarta, zeharo indarrean dagona eta gaur egungoa. Gogoeta bilatzen dugu, esloganetan eta esaldi eginetan erori gabe, ikuskizun oportunistan batean bihurtuko bailitzateke, ikuskizun konprometitu bat izan ordez. Perdiendo el juicio Tdiferenciaren azken apustua da bere bataila feminista partikularran, umorea, musika, amodioa, kabareta eta publikoaren topaketa. Egilea eta zuzendaritza: **Maite Redin** / Ekoizpena: **Tdiferencia & Teatro El Cuervo**
Antzezleak: **Nerea Bonito, Ainhoa Ruiz, Adriana Olmedo, Sergio Gayol, Alejandro Hidalgo**



Leihatila ordubete lehenago irekiko da gonbidapenak erretiratzeko.

Azaroaren 6a, ostirala. 19:00. Kultur Etxea. Sarrera librea

ZINE FORUMA

BAR BAHAR. ENTRE DOS MUNDOS

Aurkezpena eta eztabaida **Ruth Iturbiderek**in



Azaroaren 13a, ostirala. 19:00. Aurelio León Aretoa (Udaletxea)

AURKEZPENA

ZAINDU ZURE ESPAZIOA. AUTODEFENSA FEMINISTARAKO GIDA

Hizlaria: **Alicia Giménez García** (Acción Contra la Trata)



Azaroaren 22a, igandea. 13:00. Nafarroa Beherea plaza.

EKITALDIA

"Agoitzen ez dugu eraso sexistarik onartzen"



Azaroaren 25a, asteazkena. 19:00. Udaletxeko plaza.

KONTZENTRAZIOA

EMAKUMEEN AURKAKO BORTIZKERIAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA.



Beste Jarduerak

HITZALDIA: OSASUNA

Azaroaren 19a | osteguna | 19:00 | Kultur Etxea

Hizlaria: **David Brugos Miranda**

Antolatzailea: **Agoizko alargun eta pentsiodunen plataforma**



TXOR TXOR BAKARRIZKETA UMORETSUA

Azaroaren 29a | igandea | 18:00 | Kultur Etxea

BAKARRIZKETAK EUSKARAZ

Sarrera librea / 16 urtetik gorakoak / Iraupena: 50 min.

Umoretik datozen bakarrizketa hauek euskararen erabileran eragitea dute helburu. Horrelaxe osatu dute **Beatriz Egizabalek, Xabi Artiedak** eta **Nerea Arriolak** gure hizkuntza ohiturak gunera ekartzeko bakarrizketa sorta umoretik, zuen herrietan eskaintzeko.

Leihatila ordubete lehenago irekiko da gonbidapenak erretiratzeko.



HITZALDIA: EGUBERRI OSASUNGARRIAK

Abenduaren 18a | ostirala | 19:00 | Kultur Etxea

Hizlaria: **Cristina Martínez Labari**

Antolatzailea: **Agoizko alargun eta pentsiodunen plataforma**



KLAUSTROFILIA

UHOOLDEAK



Uholdeak

6-28

azaroa

José Hierro Aretoa

Asteartetik larunbatera: 18:00-20:00

Uholdeak erakusketa programa bat da, honen helburu nagusiak arte garaikideko proiektuen ikerketa eta komisariotza sustatzea, bertako artisten lana ezagutaraztea eta arte garaikidea Nafarroako lurralde osoan hedatzea dira.

Klaustrofilia proiektuarekin aurkeztu da aurten Uholdeak eta **Kanpoko bulegoa** taldearen komisariotza du (Anne Ibáñez_Marc Badal). Proposamenak, gogoeta egiten du giza existentzia autorreferentzial baten sineste faltsuaren inguruan, azken hau, beregan itxita dago, historikoki hura osatu eta baldintzatu duten prozesu naturaletatik at. Erakusketan, **Iranzu Antona**, **Mirari Echavarri**, **Víctor Masferrer** eta **Josu Zapata** artistek hartu dute parte. Proposamen artistikoak diseinatu dituzte Uholdeak-erako, Klaustrofilia ideiaaren inguruan aritzeko. Erakusketa osatzeko, **Txuspo Poyoren** lanaren dokumentazioa du.

Erakusketa, bisitatuko duen egoitza bakoitzera egokitutako bitartekaritza-programa batekin osatua dago, eta toki bakoitzeko parekotasunak trukaturako dira **Klaustrofilia**ekin. **Inés Aubert** performerrak eta **Kanpoko bulegoak** egingo dituzte ekintzak. Gainera, aurkeztutako proposamen artistikoetatik abiatuta, irakasleentzako hezkuntza-programa bat du Uholdeak-ek.

Inaugurazioa:

Azaroaren 6an | ostirala | 18:00

AGOITZ HIRIA ARGAZKI XV. LEHIAKETARA AURKEZTUTAKO ARGAZKIAK



20-1 azaroa-abendua
Areto Nagusia

Asteartetik larunbatera: 18:00-20:00

Inaugurazioa eta sari-banaketa:

Azaroaren 20an | ostirala | 18:00

SI TE MANDAN UNA CARTA.

LA INSUMISIÓN RETRATADA POR UN FOTERO DESOBEDIENTE



11-22 abendua
Areto Nagusia

Asteartetik larunbatera: 18:00-20:00

“Si te mandan una carta” Joxe Lacalle argazkilari mitikoaren argazkiz osatutako “argazkigile desobedizaile batek erretrataturako intsumisioa”. Argazkilariak ospetsuak egindako argazkiak biltzen dira liburuan. Lacallek, bere lentearekin, jakin zuen mugimendu biltzaile eta emantzipatzaile horren kolore guztiak jasotzen. Batzuetan

hurbiletik, eta beste batzuetan urrunagotik, mugimenduan bat egin zuten horiek guztiak agertzen dira: kontzientzia-eragozleak, intsumisioak, Inutil Egunaren antolatzaileak, antimilitaristak, desertoreak, gizonak eta emakumeak. Joxe Lacallek mimoz aukeratu eta berreskuratutako zuri-beltzeko argazkiek bikain islatzen dituzte kolore horiek guztiak.

Inaugurazioa:

Abenduaren 11n | ostirala | 18:00

ALFREDO & IKER PIEDRAFITA KONTZERTU AKUSTIKOA



28 azaroa
larunbata
18:00 Kultur Etxea. 5€


Alfredo & Iker Piedrafita aita-semea dira, eta lotura hori antzematen zaie. Eszenatoki gainean, elkarrekin proiektatzen dute laurogeigarren hamarkadan estatu osoan

zabaldu zen Nafarroako rock soinuko parte garrantzitsu bat.

Barricadarekin hasi eta Dikerseraino, Alfredok, gitarrarekin, estatuan erreferentziak rock soinu klasiko eskaintzen digu, eta Ikerrek, berriz, ahotsa eta gitarrarekin, etorkizuneko taldeei eragingo dieten korrante berrietara hurbilduko gaitu.

Biak MISS OCTUBRE taldeko kide izan ziren ere. Gaur egun, Iker produktore lanetan ari da, eta Espainiako baloratuenetako bat da. Alfredok, Agnesekin batera, MISS OCTUBRE taldea mantentzen du. Gaur egungo panoraman zuzenkorik onena duen bandetako bat da, eta, dagoeneko, bi disko kaleratu ditu. Eskainiko diguten erreperitorioan klasiko ugari daude, Barricada eta Dikers-en abesti ospetsuenen bertsioak eta baita abesti gogokoenen sorta bat ere, rock musikaren inguruko bizitza bateratu eta familiarra bultzatu dutenak.

TRIKIDANTZ BIZITZAZ GOXATU



12 abendua
larunbata
18:00 Kultur Etxea. 5€

Diska aurkezpena

Trikidantz Taldea, Nafarroa iparraldean kokatua dagoen Ituren herrian sortutako erromeri taldea da. Ibilbide luzeko taldea da, hainbat urtez herriz-herri ospakizun ezberdinak girotzen ibili dena, euskal kultura zein euskal musika oinarri izanik. Egun, bortz taldekidek osatzen dute taldea: Arkaitz (abeslaria eta trikitilaria), Leire (abeslaria), Odei (gitarra), Eneko (baxua) eta Mikel (bateria).

AGOIZKO SAN MIGEL ABESBATZA EGUBERRIETAKO KONTZERTUA



19 abendua
larunbata
20:30 Eliza
Sarrera librea

ADIORIK GABE



8 azaroa
larunbata
19:00 Kultur Etxea

Sarrera librea
Publiko heldua
Iraupena: 20 min.

“Adiorik gabe” adierazpen artistikoak erauzi zizkiguten pertsonen oroimena berreraikitzen du, eta gizarteari espazio bat eskaintzen dio biktimekiko zirrarak, enpatia eta elkartasuna agertzeko. Mikel Zabalza orbaiztarra gogoan Mireia Gabilondo zuzendariak egindakoa eskainiko da.

Erreserbak (646 50 69 52) telefonoan.

SALTO A ESCENA-OHOLTZARA SALTO

Aktibitate hau gure herriko gazteei zuzendutako arte eszenikoari buruzko proiektu zabalago baten parte da. Nafarroako Antzoki Sareak sorturikoa da, eta Nafarroako Kutxa – La Caixa fundazioak lagundutakoa da.

ANTZERKI FORUMA – BAKETIK FUNDAZIOA

Abenduaren 14a, astelehena eta 15a, asteartea

Eskola ordua | Eskola | Elebiz

Forum Antzerkia metodologiari esker, haurrak eta gazteak gai hauekiko sentsibilizazioa sustatzea lortzen dugu: jazarpenak, arrazismoa, alkoholaren kontsumoa, bide-heziketa, aniztasuna, emakumezko eta gizonezkoen arteko berdintasuna. Agoizko San Migel LHI eta DBHI-ko ikasleekin, honako gai hau landuko da hain zuzen ere: **eskolako jazarpena edo “bulling-a”**.



SALTO A ESCENA-OHOLTZARA SALTO egitasmoaren barneko ekitaldia da, eta arte eszenikoak gazteengana hurbiltzeko eta protagonista bilakatzea du helburu.

MAIA. NESKA ARRUNT BAT BESTERIK EZ EUSKARAZ

Abenduaren 17a | osteguna | Eskola ordua | Publikoa: Ikasleak
Saioak, artista taldearekin.

Abenduaren 18a | ostirala | Eskola ordua | Publikoa: Ikasleak
Emanaldia eta, ondoren, topaketa artistekin.

HODEI MAGOA EZINEZKOAREN LOGIKA



27 abendua
igandea
18:00 Kultur Etxea. 3€

Publiko guztiak
Iraupena: 80 min.

Hodeik bere ikuskizun berria aurkezten digu, formatu handiko ekoizpena hainbat urte osatzen egon den joko aukeraketarekin, emaitza originala lortuz, zeinean denok ezagutzen dugun magia klasikoa, sortzen ari den magia modernoarekin bat egiten du. Ezinezko ihesak, hainbat zatitan mozten diren gorputz atalak, asmaketa imajinaezinak, baita publiko osoak parte hartuko duen joko handia ere.

Hau guztia argi, kolore eta kez betetako argiztapen harrigarriaz; landutako soinu-bandaz; eta Hodeiren presentzia nabarmentzen duen eszenaratzeaz, eritimoaz eta inork axolagabe utziko ez duen umoreaz lagunduta.

Posible eta ezinezkoaren arteko muga non dagoen aurkitzera ausartzen zara?

Line - Dokumentala

FLORECICA, JOSEFINA LAMBERTO VIRGINIA SENOSIAIN ETA JUAN LUIS NAPAL



5 azaroa
osteguna
19:00 Kultur Etxea. Sarrera librea

Dokumental honetan Josefina Lambertok bere bizitzaren nondik norakoak kontatzen dizkigu lehen pertsonan. Bere aitaren eta ahizparen bahiketa, erailketa eta bortxaketatik hasita bere bizitzan zehar izandako arazo eta penuria

guztietak pasatuz.

Oso hurbileko testigantza honen bidez, pasatako minak, beldurrak, frustrazioak eta dezepzioez gain, bere indarra erakusten digu egiaren bidean izan duen borrokaren bidez eta aurrera segitzeko asmoez. Florecica dokumentalak emakume honen ibilbidea erakusten digu, bere tristurak, indarrak, aske izateko gogoak, pertsona bezala hazitzeko grina... honek denak ez zaitu axolagabe utziko. Florecica Maravillas da (Bere ahizpa bortxatua eta eraila), bere ama da, ume guztiak da, emakume guztiak, ama eta amona guztiak, bortxatuak, faxisten eskuetan bahituak eta erailak izandako emakume guztiak da. Faxismoak bere horretan darrai eta harekin bukatu beharra dago.

Leihatila ordubete lehenago irekiko da gonbidapenak erretiratzeko.

BI URTE LAU HILABETE ETA EGUN BAT LANDER GARRO



20 abendua
igandea
18:00 Kultur Etxea. Sarrera librea

Preso bat, Iruñeko kartzela utzi eta hainbat urte geroago, bere ziegara itzultzen da kartzela betiko eraitsia izango den egunean. Pozik behar luke, baina preso, ziegan dagoela, negarrez hasi da. Bertan eman zituen presoak, intsumitu

izateagatik, bere bizitzako 2 urte eta 4 hilabete.

Zuzendariak, irudi horretatik abiatuta, 90 hamarraldiko derrigorrezko zerbitzu militarren kontrako mugimenduaren azterketa bat egingo du: politikoa, soziala, eta intimoa. Horretarako, ziegara sartu zen intsumitu hori eta haren hainbat kide erabiliko ditu: beren bizitzak berregin zituzten arren, beren baitan intsumitu izaten segitzen dute.

Iraupena: 90min.

Leihatila ordubete lehenago irekiko da gonbidapenak erretiratzeko.

Talerrak

ARTE PLASTIKOAK: "EGUBERRIETAN PLASTIKATZEN" Abenduaren 28, 29 eta 30 | Kultur Etxea | Euskaraz



Irakaslea: Patxi Huarte

Ordutegia: A taldea: 9:30-11:30 (8-12 urte bitartekoak)

B taldea: 11:30-13:30 (5-7 urte bitartekoak)

Matrikula: 10€ (materiala barne)

Covid-19 neurriak

Izen-emateak: Abenduaren 14tik 18ra, **012** bidez

(012 zenbakian izena emandakoan, zenbatekoa sartu Nafarroako Rural Kutxan: ES83 3008 0233 1531 3763 3925).

Sarreraren salmenta:

- Interneten: **www.aoiz.es**
- ***Oharra:** Sarrerak Internet bidez erosi ezin duenak salgai izanen ditu Kultur Etxean, erakusketa zabalik dagoen ordutegian.
- Leihatilan, ikuskizuna hasi baino ordu bete lehenago (sarrerarik gelditzen bada)
- *Hartutako sarrerak ezingo dira aldatu, ezta itzuli ere, ikuskizuna bertan behera uzten denean izan ezik.

Araurorokorrak:

- Ezin izanen da aretoan sartu, funtzioa hasita baldin badago.
- Sakelako telefonoak edo/eta mota guztietako alarma edo seinaleak itzaliko dira, Kultur Etxera sartu eta.
- Isilik egon, aktoreek arreta gal ez dezaten eta beste ikusleekiko errespetuagatik.
- 7 urtetik beherako haurrak arduradun batekin agertuko dira, edozein dela antolatutako aktibitatea.
- Ezin da filmatu, grabatu edo argazkirik atera, Kultur Etxeak espresuki baimena eman ez badizu.
- Ikuskizuna edo aktibitatea garatzen den bitartean, libre egonen dira sarrerak, irteerak eta pasilloak, eta ez da han inolako elementurik utziko.
- Ezin da Kultur Etxera sartu animalia, bizikleta edo patinekin batera.
- Kultur Etxeko aretoetan ezingo da jan edo edan, Kultur Arloak egoki ikusten dituen zenbait egoeratan izan ezik. Modu berean, erretzea ere debekatuta dago.
- Programazioan zerbait gertatuz gero edo aldaketarik emanez gero, jakitera emanen da ohiko hedabideen bidez.
- Kultur Etxean dauden langileek esandakoari jarraituko zaio beti.
- Agoizko Udalak adierazitako arauak errespetatzen ez dituzten pertsonak onartzeko edo baztertzeko eskubidea dauka.

COVID-19 SEGURTASUN-NEURRIAK

Agoizko Kultur Etxean, osasun-agintarien gomendioak eta gidak jarraituz, babes-neurriak ezarri ditugu gure zerbitzu eta instalazioetan, koronabirusarekiko esposizioaren arriskuak ahalik eta gehien murrizteko eta, horrela, pertsonen segurtasuna eta osasuna bermatzeko.

Neurriak etengabe berrikusten ari dira, COVID-19ri buruz indarrean dauden araudiak eguneratzearen eta egokitzearen arabera.

1. Instalazioak garbitzea, desinfektatzea eta mantentzea

- Ekitaldi bakoitzaren aurretik eta ondoren, erabiliko diren instalazioak garbitu eta desinfektatuko dira.
- Erabiltzaileek erabil ditzaketen espazio guztiak egunero garbituko dira, edo eta erabilera-maiztasunaren eta jende-fluxuen arabera.
- Gel-banagailu hidroalkoholikoak behar bezala seinaleztatuta jarriko dira.

2. Instalazioetara sarbideak eta zirkulazioak

- Publiko-fluxuak zuzentzeko behar diren bitartekoak artikulatuko dira. Sarrera mailakatua izango da, eta segurtasun-tarte egokiak gordeko dira.
- Txarteldegian zein aretoetarako sarbideetan segurtasun-distantzia mantentzen dela zainduko da, lurrean argi eta garbi identifika daitezkeen markak txertatuz.

3. Norberaren osasuna eta higiena

- Kultur Etxean eta antolatutako ikuskizunetan derrigorrezkoa izango da maskarak erabiltzea.
- Gel-hidroalkoholikoa aretoaren sarreran egongo da.